

# **ABERTZALEEN BATASUNA – BATASUNA - EUSKO ALKARTASUNA**

2007-ko ekainean frantses legegiltzarreko hauteskundeak iraganen dira. Hiru alderdi abertza-leek hauteskunde horietan elgarrekin hautagaiak presentatzea deliberatu dute.

## **Zein da hautagaitzaren zentzua ?**

Abertzaletasuna oraindik guttiengoan den Ipar Euskal Herriko lurraldeetan, indar abertzaleen arteko elkarlan dinamikari bidea egitea dugu helburu. Estatu frantsesaren ukapen jarrera bortitzaren aitzinean abertzaleen arteko elkarlan hori ezinbestekoa dugu.

Estatu frantsesaren krisia (politikoa, soziala, ekonomikoa eta instituzionala) eta Euskal Herriaren gatazkaren gainditzeko prozesu bat abiatzeko entsegua egiten ari den testuinguruan (Europako Parlamentuak urriaren 25 eko bilkuran babestu duena), Euskal Herriaren burujabetza ongizate sozial hobea go batentzat helburu nagusitzat duten indar abertzale guzietan, Herri bakar baten existentzia aldarrikatzen dugu.

Hiru alderdiek Euskal Herriaren ezagupen eta bere herritarren eskubide kolektiboei buruzko mezu baikor eta indartsua eraman nahi dute elgarrekin. Jende gehienek gaur egun indar bat bezala ikusten duten Herri honen nortasun berezia goraki defenditu nahi dute bere nazio izaera aldarrikatuz. Biztanle oroentzako justizi sozialean oinarritu Herri proiektua presentatu nahi dute, Euskal Herriak bide demokratiko eta politikoen bidez bere geroaz erabakitze duen eskubidea defendatuz.

Hautagaitza abertzale hau, Ipar Euskal Herriko biztanle guziari zuzentzen zaio manera batez edo bestez gehiengoan aldarrikatzen duten :

- beren euskaldungoa,
  - Herri honen berezitasun ainitzari beren atxikimendua
  - heien etorkizun bateratuaz, erabakitze duen poderea azkartuz beren gain hartzeko borondatea.
- Ipar Euskal Herriari edozein ezagupen instituzionala oraindik ukatua zaiolarik, euskarak nihundiko lege babesik gabe gelditzen delarik eta beste hainbat problematik blokatuak diren bitartean, hautagaitza abertzaleak frantses gobernamentu eta tokiko politikari batzuen mes-pretxua gogor salatuko du. Egora honen aitzinean, aldarrikatuko ditu :
- Euskal Herriaren ezagupena Herri gisa, eta eskumen zabaleko kuadro instituzionala Ipar Euskal Herriarentzat.
  - Euskararen koofizialtasuna.
  - Hemengo biztanleek gidaturiko garapen jasangarria eramaiteko tresna politiko eta demokratikoak.

## **Sens de la candidature commune des 3 partis abertzale**

Les 10 et 17 juin 2007 vont se dérouler les élections législatives dans l'Etat français. Les trois partis abertzale ont décidé d'y présenter une candidature unitaire.

- Dans les provinces du Pays Basque Nord les forces abertzale sont encore minoritaires, notre objectif est de créer une dynamique commune. Face à l'attitude de négation du Pays Basque par l'Etat français et par une partie de la classe politique locale, ce travail en commun entre abertzale est indispensable.

- Dans le contexte de crise de l'Etat français (institutionnelle, politique, économique et sociale) et d'amorce de résolution du conflit en Pays Basque soutenue par le Parlement européen (session du 25 octobre), les trois partis politiques adressent un message fort et positif sur l'existence et la reconnaissance du Pays Basque et les droits collectifs de ses habitant(e)s. Revendiquant la dimension nationale du Pays Basque, ils veulent défendre l'identité spécifique de ce pays que la majorité des personnes reconnaissant aujourd'hui comme une richesse et une force. Défendant, pour le Pays Basque et ses habitants, le droit de décider de leur avenir par des voies politiques et démocratiques, ils présentent un projet national fondé sur la justice sociale.

- Cette candidature abertzale s'adresse à tou(te)s les habitant(e)s du Labourd, de la Basse-Navarre et de la Soule. Dans leur grande majorité ils revendiquent chacun à leur manière et à des degrés divers leur basquitude, leur attachement à ce pays, leur volonté de se prendre en main et d'aller vers plus de souveraineté en développant leur pouvoir de décision pour un avenir commun.

- A ce jour, toute reconnaissance institutionnelle est refusée à nos trois provinces, l'euskara ne dispose d'aucun cadre légal et de nombreux dossiers sont systématiquement bloqués. Face à cette situation la candidature commune des abertzale revendiquera la reconnaissance d'un Pays Basque Nord pourvu d'un cadre institutionnel aux compétences larges avec la co-officialisation de l'euskara et les outils politiques et démocratiques nécessaires au développement équilibré de ce pays, notamment aux relations avec les autres territoires du Pays Basque.